



DIRULAGUNTZA-PROGRAMEI BURUZKO EBALUAKETA 2021

LURRALDE PLANGINTZA, ETXEBIZITZA ETA GARRAIOAK

1. Euskal Autonomia Erkidegoko errepideko garraioaren sektoreko elkarte profesionalentzako eta enpresarialentzako diru-laguntzak, 2021. urterako	2
2. Birgaitze integral eta efizienterako erkidegoen obretarako finantza-neurriak	3
3. Partikularrek eta bizilagunen erkidegoek birgaitze-lanak egiteko dirulaguntzak, etxebizitzaren bizigarritasuna hobetzeko, eraikinen kontserbazioa eta egiturazko mantentze-lanak egiteko, desgaitasuna duten pertsonen sarbidea errazteko eta energia-kontsumoa murrizteko	5
4. Ondare publikoak osatzeko lurzorua kostu bidez erosteko dirulaguntzak	9
5. Euskal Autonomia Erkidegoko udalentzako eta Arabako udalerrien kontzejuentzako dirulaguntzak, 2021eko ekitaldirako paisaiaren arloko ekintza-planak egiteko	10
6. Alokairua sustatzeko dirulaguntzak	12
7. Gaztelagun programa	16
8. Udal plangintzan eta hirigintzan genero-ikuspegia txertatzeko dirulaguntzak emateko arauak ezarri eta 2021eko ekitaldirako deialdia egiten duena	18
9. Euskal Autonomia Erkidegoko udalentzako dirulaguntzak, udal informazio geografikoa hobetzeko eta Euskadiko Datu Espazialen Azpiegituran integratzeko, GeoEuskadi geoatariaren bidez, 2021eko ekitaldirako.....	20
10. Euskal Autonomia Erkidegoko salgaien eta bidaiarien errepideko garraio publikoan teknologia berrien eta segurtasunaren sistemak ezartzeko diru-laguntzak 2021. urterako.....	22
11. Etxebizitzarako Prestazio Ekonomikoa (EPE).....	23
12. Jarduera bertan behera uztea dela-eta, bidaiarien eta salgaien garraio publikoaren sektorerako laguntzak, 2021. urterako	24
13. Salgai dauden babes publikoko etxebizitzak.....	25
14. ZTBP Euskadi 2020 programaren (BAI+D+i programa) aukera-nitxoaren helburuetan laguntzen duten ideia eta proiektu berritzaileak garatzeko dirulaguntzak	27



1.- Dirulaguntza-programaren izenburua

Euskal Autonomia Erkidegoko errepideko garraioaren sektoreko elkarte profesionalentzako eta enpresarialentzako diru-laguntzak, 2021. urterako

2.- Araua

Agindua, 2021eko ekainaren 22koa, Lurralde Plangintza, Etxebizitza eta Garraioetako sailburuarena, zeinaren bidez iragartzen baita Euskal Autonomia Erkidegoko errepideko garraioaren sektoreko elkarte profesional eta enpresarialei laguntzak emateko deialdia.

3.- Programaren araua, deialdia eta emate-ebazpena (EHAri Hiperesteka)

<https://www.euskadi.eus/y22-bopv/eu/bopv2/datos/2021/07/2103793e.shtml>

4.- Dirulaguntza-programaren azalpen laburra eta helburuak

Laguntzak ematen dira salgaien eta bidaiarien errepideko garraioaren arloko elkarte profesionalen eta enpresarialen jarduera eta ekimenei laguntzeko. Helburua da erakunde horiei laguntzak emateko mekanismo bat ezartzea, uste baita elkarte profesionalak eta enpresarialak gai direla sektorean dauden gabeziak betetzeko behar diren ekimenak sortzeko.

5.- Lortutako emaitzak, aurrekontuaren gauzatzea eta eragina gizartean

100.000 € erabili dira laguntza horiek finantzatzeko. Zenbateko hori, aurreikusitako eskabideekin eta kopuruekin bat zetorrela jo zen.

Laguntza horiek eskatzeko 7 espediente izapidetu dira, eta haietatik 6 espedienteri eman zaie laguntza. Diru-laguntzen zenbatekoa: 87.645,00 euro, eta horietatik 85.880,00 erabili dira.

Programaren betepenari eta lortutako helburuei dagokionez, 2021. urtean eskainitako emaitzak (7 eskabide eta 6 onuradun. hurbildu egiten dira 2021rako aurrekontuen memorian 8 magnitudetan ezarritako helburuetara; horregatik, programak jasotako erantzuna egokitzat hartu da eta, aurreikusitako egitaraua betetzen dela uste da.

6.- Dirulaguntza Plan Estrategikoaren adierazle emaitzak

<u>Adierazlea</u>	<u>Aurreikuspena</u>	<u>Emaitza</u>
Elkarte onuradun zenbatekoa	8	6



1.- Dirulaguntza-programaren izenburua

Birgaitze integral eta efizienterako erkidegoen obretarako finantza-neurriak

2.- Araua

AGINDUA, 2021eko uztailaren 21ekoa, Lurralde Plangintza, Etxebizitza eta Garraioetako sailburuarena, etxebizitzaren eta eraikinen birgaitzearen, irisgarritasunaren eta energia-efizientziaren arloko jarduketak babesgarrietarako finantza-neurriei buruzkoa.

3.- Programaren araua, deialdia eta emate-ebazpena (EHAari Hiperesteka)

<https://www.euskadi.eus/y22-bopv/eu/bopv2/datos/2021/09/2104690e.pdf>

4.- Dirulaguntza-programaren azalpen laburra eta helburuak

1.- Birgaitze integral eta efizienterako erkidegoen obretarako finantza-neurriak. Birgaitze-obrek energia-efizientzian, irisgarritasunean eta suteetatik babesteko segurtasunean batera eta aldi berean esku hartzeko proiektu baten berezko irismen globala dutenean, gutxienez, etxebizitza-erabilera nagusia duen bizitegi-tipologia kolektiboko eraikin oso bat denean. Era berean, esku hartzeko proiektuek etxebizitzaren kanpoko bizigarritasuna hobetzeko jarduketak jaso ahal izango dituzte.

2.- Birgaitze integral eta efizienterako erkidegoen obretarako finantza-neurrietan (3. lerroa), aurrekontu babesgarritzat hartuko dira diruz lagun daitezkeen honako kostu hauei dagozkien partidak:

- a) Txostenak, ziurtagiriak eta proiektuak idazteko eta obren zuzendaritza fakultatiborako ordainsari profesionalak, baldin eta horiek ezinbestekoak badira dirulaguntzaren xede diren jarduketak exekutatzeko, zergak kanpo utzi ondoren. Era berean, eta hala badagokio, Eraikinen Ikuskapen Teknikoa idazteko ordainsari profesionalen kostuak.
- b) Obrak gauzatzea, baldin eta ezinbestekoak badira dirulaguntzaren xede diren jarduketak exekutatzeko, behin zergak kenduta, proiektua onartu ondoren eta obra-amaierako ziurtagiriaren data baino lehen exekutatu, ziurtatu eta fakturatu badira

3. – Laguntzaren xede diren familia anitzeko eraikinen eraikuntza-datak 1980a baino lehenagokoa izan behar du, eta eraikin horiek hirigintza- eta egitura-egokitzapena izan behar dute, abenduaren 30eko 317/2002 Dekretuaren arabera.

4. – Ez dira diruz lagunduko jenderik gabeko eraikinak, aurri-deklarazioa dutenak edo izan daitezkeenak.

5. – Ez dira diruz lagunduko eskaera aurkezteko unean hasita dauden edo lizentzia duten obrak, ezta egitura sendotzekoak, eraikina konpontzekoak (fatxadak, estalkiak, etab.), ezta etxebizitza kopurua handitzeko eraikinen birgaitze integralak ere.



5.- Lortutako emaitzak, aurrekontuaren gauzatzea eta eragina gizartean

30 eskaera jaso ziren, jasotako eskaeretatik 15ek atzera egin du te, eta gainerakoak, 15, aztertzen ari dira. Atzera egin ez duten eskaera guztien artean 4.050.000,00 euroko laguntza zenbatetsi da.

241 etxebizitzatan sartu dira atzera egin ez duten 15 eskaerak.

Laguntza-lerro hori bizitegi-birgaitzearen motor garrantzitsua da, eta honako hauek bultzatzen ditu: karbono gutxiko ekonomia, energia-efizientziaren laguntza, energiaren kudeaketa adimenduna eta etxebizitza-erakinen azpiegiturretan energia berriztagarriak erabiltzea, energia-efizientzia hobetzea eta CO2 emisioak murriztea. Era berean, irisgarritasun unibertsala sustatzen du, lehendik dauden eraikinen irisgarritasun-baldintzak hobetuz eta suteen aurkako babes-sistemak egungo araudira egokituz. Eta etxebizitzaren kanpo-bizigarritasuna hobetzeko jarduerak ere jasotzen ditu.

6.- Dirulaguntza Plan Estrategikoaren adierazle emaitzak

<u>Adierazlea</u>	<u>Aurreikuspena</u>	<u>Emaitza</u>
Birgaitutako etxebizitzaren kopurua	4.000	



1.- Dirulaguntza-programaren izenburua

Partikularrek eta bizilagunen erkidegoek birgaitze-lanak egiteko dirulaguntzak, etxebizitzaren bizigarritasuna hobetzeko, eraikinen kontserbazioa eta egiturazko mantentze-lanak egiteko, desgaitasuna duten pertsonen sarbidea errazteko eta energia-kontsumoa murrizteko

2.- Araua

BOEen araubidea:

- 39/2008 DEKRETUA, martxoaren 4koa, babes publikoko etxebizitzaren araubide juridikoari eta etxebizitzaren eta lurzorua inguruko finantza-neurriei buruzkoa. (2008ko martxoaren 28ko EHAA, 59. zk.).
- AGINDUA, 2012ko urriaren 15ekoa, Etxebizitza, Herri Lan eta Garraioetako sailburuarena, etxebizitza-eskatzaileen erregistroari eta babes ofizialeko etxebizitzak nahiz araubide autonomikoko zuzkidura-bizitokiak esleitzeko prozedurei buruzkoa. (2012ko urriaren 31ko EHAA, 211. zk.).
- AGINDUA, 2012ko abenduaren 12koa, Etxebizitza, Herri Lan eta Garraioetako sailburuarena, honako agindu honetako akatsak zuzentzeko dena: 2012ko urriaren 15eko Agindua, Etxebizitza-eskatzaileen erregistroari eta babes ofizialeko etxebizitzak nahiz araubide autonomikoko zuzkidura-bizitokiak esleitzeko prozedurei buruzkoa. (2012ko abenduaren 28ko EHAA, 251. zk.).

BOEen gehieneko prezioak:

- AGINDUA, 2010eko azaroaren 3koa, Etxebizitza, Herri Lan eta Garraioetako sailburuarena, babes ofizialeko etxebizitzaren gehieneko prezioak zehazteari buruzkoa (2010eko azaroaren 18ko EHAA, 222. zk.).
- AGINDUA, 2012ko urriaren 15ekoa, Etxebizitza, Herri Lan eta Garraioetako sailburuarena, etxebizitza-eskatzaileen erregistroari eta babes ofizialeko etxebizitzak nahiz araubide autonomikoko zuzkidura-bizitokiak esleitzeko prozedurei buruzkoa. (2012ko urriaren 31ko EHAA, 211. zk.).
- AGINDUA, 2012ko abenduaren 12koa, Etxebizitza, Herri Lan eta Garraioetako sailburuarena, honako agindu honetako akatsak zuzentzeko dena: 2012ko urriaren 15eko Agindua, Etxebizitza-eskatzaileen erregistroari eta babes ofizialeko etxebizitzak nahiz araubide autonomikoko zuzkidura-bizitokiak esleitzeko prozedurei buruzkoa. (2012ko abenduaren 28ko EHAA, 251. zk.).

Etxebizitza birgaitzea:

- 117/2018 DEKRETUA, uztailaren 24koa, Euskal Autonomia Erkidegoko eraikinen ikuskapen teknikoari buruzkoa. (2018ko irailaren 5eko EHAA, 171. zk.)
- AGINDUA, 2021eko uztailaren 21ekoa, Lurralde Plangintza, Etxebizitza eta Garraioetako sailburuarena, etxebizitzaren eta eraikinen birgaitzearen, irisgarritasunaren eta energia-efizientziaren arloko jarduketara babesgarrietarako finantza-neurriei buruzkoa (2021eko irailaren



9ko EHAA, 180. zk.)

- 80/2014 DEKRETUA, maiatzaren 20koa, Euskal Autonomia Erkidegoko eraikinen ikuskapen teknikoa arautzen duen dekretua aldatzen duena (2014ko maiatzaren 30eko EHAA, 101. zk.).

Lankidetzeta-hitzarmena Finantza Erakundeekin:

- 210/2019 DEKRETUA, abenduaren 26koa, kreditu-erakundeen eta Euskadiko Autonomia Erkidegoko Administrazioaren arteko etxebizitzaren eta lurzoruaren arloko finantza-lankidetzakoa, eta etxebizitzaren arloko erregelamendu-xedapenak aldatzekoa. (2020ko urtarrilaren 20ko EHAA, 12. zk.).

3.- Programaren araua, deialdia eta emate-ebazpena (EHAARI Hiperesteka)

119 zenbakiko EHAA. 2015. URTEA. 3/2015 Legea, ekainaren 18koa, Etxebizitzarena

Etxebizitza kredituen publizitateari buruzko 2021eko maiatzaren 11ko Agindua, maiatzaren 19ko EHAA, 97 zk.

<https://www.euskadi.eus/y22-bopv/es/p43aBOPVWebWar/VerParalelo.do? Cd2021002864>

4.- Dirulaguntza-programaren azalpen laburra eta helburuak

Parke eraikia birgaitzen laguntzeko helburu orokorraren barruan, dirulaguntza-lerro bat dago, partikularrek eta bizilagunen erkidegoek birgaitze-lanak egin ditzaten, etxebizitzaren bizigarritasuna hobetzeko, eraikinen kontserbazioa eta egiturazko mantentze-lanak egiteko, desgaitasunen bat duten pertsonen sarbidea errazteko eta energia-konsumoa murrizteko.

Dirulaguntzak herritarrentzat eta jabeen erkidegoentzat dira.

Sistema hori EAEn jarduten duten kreditu-erakundeek maileguak ematean oinarritzen da (administrazioaren eta kreditu-erakundearen arteko finantza-hitzarmenaren esparruan), eta horren gainean zuzeneko dirulaguntzen eta maileguen interes-puntuen sorospenen sistema bat egituratzen da, araz ezarritako babes-kasu zehatz eta tasatuetan.

Intereseko sorospenen kasuan, jarduketa babestuen helburu bakarra etxebizitza babesturako lurzoria erostea eta urbanizatzea eta alokairuko etxebizitzak sustatzea da.

Itzuli beharrik gabeko dirulaguntzen kasuan, lurzoruaren eta alokairuaren aurreko bi lerro horiei etxebizitzak eta eraikinak birgaitzea eta erabilitako etxebizitza libreak erostea gehitu behar zaie.

Laguntza-modalitateak jarduketa-tipologiaren arabera ezartzen dira, eta diskriminazio progresiboko sistema batekin, onuradunen errenta-mailaren eta lurralde-intentsitate erlatiboaren arabera.

2021eko uztailean birgaitze-agindu berri bat onartu zen, eta hobekuntza garrantzitsuak egin ziren obra horietarako. Oso gutxi dira ekitaldi honetan eta Agindu berriaren babesean ebazten diren eskaerak.



5.- Lortutako emaitzak, aurrekontuaren gauzatzea eta eragina gizartean

Etxebizitzak birgaitzeko maileguen sorospenak:

Etxebizitza-programaren 2021eko aurrekontuaren helburuetan, bigarrean, "arrazoizko prezioetan alokatzeko eskaintza publikoa areagotzea" (2.j. adierazlea. Finantzaketa-esparru egoki eta egonkorra ematea) delakoan, Eusko Jaurlaritzaren eta Euskadin diharduten kreditu-erakundearen arteko finantza-hitzarmenaren bidez finantzatzeko 100 milioi euroko helburua adierazten da.

Ekitaldiaren amaieran, helburu horren betetze-mailari dagokionez, sistemari 17 milioi euroko finantzaketa eman zaiola adierazten da.

Balantze orokorrari dagokionez, 2021. urtean gora egin dute emandako maileguak (46 mailegu) eta finantzaketa zenbateko osoak (17 milioi euro).

Krisiaren ondoren, tanta-jarioak jarraitzen du erosleei eta sustatzaileei maileguak ematen.

Onartutako mailegu subsidiatuen kopurua 2 da, eta zenbatekoa 1.307,38 eurokoa da, urte anitzetan.

Birgaitzeko dirulaguntzak:

Partikularrei eta jabeen erkidegoei etxebizitzak eta eraikinak birgaitzeko laguntzak emateko programaren esparruan, Etxebizitza Sailak **24,6 milioi euroko laguntzak eman ditu, 9.894 etxebizitza birgaitzeko.**

2021eko kopuruak hazkundera dira, etxebizitzari dagokienez, 2020ko jaitsiera handiaren ondoren; hori serie estatistiko osoko baliorik baxuena izan zen. Emandako dirulaguntzen zenbatekoari dagokionez, balioa oso urrun dago azken hiru urteetako dirulaguntzetatik, 2017-2019 aldiko zenbatekoen antzekoak baitira.

COVID19 pandemiaren ondoriozko osasun-krisiaren ostean, 2020ko ekitaldian eta 2021ekoan. Hazkunde horren azalpena 2020an bizi izan den ezohiko urtean bilatu behar da, eta neurri txikiagoan 2021ean. 2020an hasitako ziurgabetasun-egoera horren ondorioz, segur aski, ekitaldi horretarako aurreikusitako jarduketa asko hurrengo urteetarako atzeratu dira, eta, gainera, 2020an, administrazio-konfinamenduko hilabeteak poliki-poliki berreskuratzen joan dira, kudeaketa serio kaltetuta.

Etxebizitzarako dirulaguntzak (2021/12/31n eguneratutako datuak)

Dirulaguntzak	2018		2019		2020		2021	
	Kop.	Mila €	Kop.	Mila €	Kop.	Mila €	Kop.	Milaka €
Birgaitzea	13.397	17.907	14585	19.533	7.519	14.168	9.894	24.553

Birgaitzeko dirulaguntzen banakapena, obra motaren eta eragindako inbertsioen aurrekontu globalaren arabera (eurotan):



Obra motak eurotan

	2018	2019	2020	2021
Dirulaguntza	17.907.331,99	19.533.236,00	14.168.363,00	24.552.501,00
Egitura	8.393.361,00	9.845.675,00	6.928.462,00	9.286.082,00
Akabera	125.750,00	107.177,00	71.200,00	120.712,00
Egokitzapena	5.103.929,00	4.947.327,00	3.200.310,00	7.282.891,00
Inguratzaila	4.313.875,00	4.626.606,00	3.966.590,00	7.862.816,00
Ordainsariak	24.416,00	6.451,00	1.800,00	0,00
Aurrekontu babesgarria	424.237.152,10	522.613.654,39	193.877.029,79	226.589.129,00

6.- Dirulaguntza Plan Estrategikoaren adierazle emaitzak

<u>Adierazlea</u>	<u>Aurreikuspena</u>	<u>Emaitza</u>
Birgaitutako etxebizitzaren kopurua	12.000	9.894
Lokal kopurua		540
Erkidego-kopurua		2.625
Instalaturako igogailuen kopurua	600	350
Energia-eraginkortasuna hobetu duten bizikidetzeta-unitateen kopurua	4.000	2.014



1.- Dirulaguntza-programaren izenburua

Ondare publikoak osatzeko lurzorua kostu bidez erosteko dirulaguntzak

2.- Araua

AGINDUA, 2010eko otsailaren 3koa, Etxebizitza, Herri Lan eta Garraioetako sailburuarena, berehala eraikitzeko den lurzoruaren urbanizazioari aplikatzeko finantza-neurriei buruzkoa, babes publikoko etxebizitzak lehentasunez sustatzeko. (2010eko otsailaren 26ko EHAA, 39. zk.).

3.- Programaren araua, deialdia eta emate-ebazpena (EHAARI Hiperesteka)

2010eko otsailaren 3ko Agindua, 2010eko otsailaren 26ko EHAA, 39. zk.

Etxebizitza kredituen publizitateari buruzko 2021eko maiatzaren 11ko Agindua, maiatzaren 19ko EHAA, 97 zk. <https://www.euskadi.eus/y22-bopv/es/p43aBOPVWebWar/VerParalelo.do?Cd2021002864>

4.- Dirulaguntza-programaren azalpen laburra eta helburuak

Programaren helburua da lurzoruaren udal-ondareen eraketa bultzatzea, etxebizitza babestua sustatzeko.

Laguntza-lerro hori udalentsat, tokiko erakunde publikoentzat eta udal-sozietate publikoentzat da.

5.- Lortutako emaitzak, aurrekontuaren gauzatzea eta eragina gizartean

Lehiarik gabeko konkurrentzia-araubideko dirulaguntzak dira. Urtero, sailburuaren agindu bidez, dirulaguntza-lerro honetara bideratutako kredituen berri ematen da. 2021eko ekitaldiko aurrekontuzuzkidura 50.000 eurokoa izan zen.

Ez da laguntzarik eman programa honetan.

6.- Dirulaguntza Plan Estrategikoaren adierazle emaitzak

<u>Adierazlea</u>	<u>Aurreikuspena</u>	<u>Emaitza</u>
Lortutako lurzoruaren gaineko etxebizitza eraikigarrien kopurua		0



1.- Dirulaguntzen programaren izenburua

Euskal Autonomia Erkidegoko udalentsako eta Arabako udalerrien kontzejuentzako dirulaguntzak, 2021eko ekitaldirako paisaiaren arloko ekintza-planak egiteko

2.- Araua

AGINDUA, 2021eko irailaren 8koa, Lurralde Plangintza, Etxebizitza eta Garraioetako sailburuarena, zeinaren bidez ezartzen baitira 2021eko ekitaldirako paisaiaren ekintza-planak prestatzeko oinarri arautzaileak eta egiten baita Euskal Autonomia Erkidegoko udalentsako eta Arabako udalerrien kontzejuentzako dirulaguntzak emateko deialdia

3.- Programaren araua, deialdia eta emate-ebazpena (EHAARI Hiperesteka)

DEIALDIA: 2021eko irailaren 13ko EHAA (182. zk.) 2021/4715

<https://www.euskadi.eus/y22-bopv/eu/bopv2/datos/2021/09/2104715e.pdf>

Emakida-ebazpena, 2021eko azaroaren 12ko EHAA (225. zk.) 2021/5776

<https://www.euskadi.eus/y22-bopv/eu/bopv2/datos/2021/11/2105776e.pdf>

4.- Dirulaguntza-programaren azalpen laburra eta helburuak

Helburua da EAEko udalei eta Arabako udalerrien kontzejuei paisaiarako ekintza-planak (PEP) egitearen ondoriozko gastuak diruz laguntzea.

Aipatutako 90/2014 Dekretuaren 6.1 artikulua xedatzen duenez, PEPak kudeaketa-tresnak dira, eta paisaiaren katalogoetan eta paisaiaren zehaztapenetan oinarrituta, paisaia babesteko, kudeatzeko eta antolatzeko jardueren esparruan gauzatu beharreko ekintzak zehaztuko dituzte.

Lurralde Plangintzako eskumenetik, deialdietan lehentasuna emango zaio gaur egun degradatuta dauden eremuak berroneratzeari, batez ere giza ekintzagatik, hala nola abandonatutako edo gainbeheran dauden industria-eremuak, edo irisgarritasuna hobetzeko eta eraikinak birgaitzeko beharra duten langile-auzoak. Era berean, paisaia-elementu esanguratsuei edo identitate-elementuei balioa eman nahi zaie, baina babes-figurarik gabe, baita beste eremu batzuetan duten eginkizunari ere, hala nola mugikortasunean edo osasunean.



5.- Lortutako emaitzak, aurrekontuaren gauzatzea eta eragina gizartean

Paisaiaren arloko ekintza-planen garapena oso desberdina izan da aurreko deialdietan, udalerrri batzuek baliabide gutxi dituztelako, beste batzuek kudeaketa konplexua dutelako eta udalek arlo horretan esperientzia gutxi dutelako; izan ere, udalaren arabera, hirigintzatik, kulturatik edo ingurumenetik egiten dute hori. Udalei buruz ari gara, Arabako kontzeju bakar bat ere ez delako aurkeztu orain arte.

Oso positibotzat jotzen dugu zenbait udalen jarduna, beren PEPetan adierazitako ekintzak beren hiri-antolamenduko plan orokorrean edo udal-estrategian txertatzean, hala nola Erreterian edo Astigarragan. Beste batzuk gai berritzaileak lantzen ari dira, hala nola azpiegitura berdea, hiri-eremuetan, Durangon, edo ibai-inguruneetan, besteak beste.

Azaldu behar da, halaber, koronabirusaren pandemiaren ondorioz ez zela egin 2020ko urteko deialdia eta zenbait hilabete atzeratu zela 2021ekoa, eta horrek zaildu egin zuela diruz lagundutako erakundeen kudeaketa 2021eko ekitaldian lanak kontratatzeko.

6.- Dirulaguntza Plan Estrategikoaren adierazle emaitzak

<u>Adierazlea</u>	<u>2021-24 aurreikuspena</u>	<u>2021eko emaitza</u>
Aurreikusitako jarduketak	40	49
Eragindako biztanle kopurua	200.000	105.674



1.- Dirulaguntza-programaren izenburua

Alokairua sustatzeko dirulaguntzak

2.- Araua

3/2015 Legea, ekainaren 18koa, Etxebizitzarena.

BOEen araubidea:

- 39/2008 DEKRETUA, martxoaren 4koa, babes publikoko etxebizitzaren araubide juridikoari eta etxebizitzaren eta lurzorua inguruko finantza-neurriei buruzkoa. (2008ko martxoaren 28ko EHAA, 59. zk.).
- AGINDUA, 2012ko urriaren 15ekoa, Etxebizitza, Herri Lan eta Garraioetako sailburuarena, etxebizitza-eskatzailen erregistroari eta babes ofizialeko etxebizitzak nahiz araubide autonomikoko zuzkidura-bizitokiak esleitzeko prozedurei buruzkoa. (2012ko urriaren 31ko EHAA, 211. zk.).
- AGINDUA, 2012ko abenduaren 12koa, Etxebizitza, Herri Lan eta Garraioetako sailburuarena, honako agindu honetako akatsak zuzentzeko dena: 2012ko urriaren 15eko Agindua, Etxebizitza-eskatzailen erregistroari eta babes ofizialeko etxebizitzak nahiz araubide autonomikoko zuzkidura-bizitokiak esleitzeko prozedurei buruzkoa. (2012ko abenduaren 28ko EHAA, 251. zk.).

BOEen gehieneko prezioak:

- AGINDUA, 2010eko azaroaren 3koa, Etxebizitza, Herri Lan eta Garraioetako sailburuarena, babes ofizialeko etxebizitzaren gehieneko prezioak zehazteari buruzkoa (2010eko azaroaren 18ko EHAA, 222. zk.).
- AGINDUA, 2012ko urriaren 15ekoa, Etxebizitza, Herri Lan eta Garraioetako sailburuarena, etxebizitza-eskatzailen erregistroari eta babes ofizialeko etxebizitzak nahiz araubide autonomikoko zuzkidura-bizitokiak esleitzeko prozedurei buruzkoa. (2012ko urriaren 31ko EHAA, 211. zk.).
- AGINDUA, 2012ko abenduaren 12koa, Etxebizitza, Herri Lan eta Garraioetako sailburuarena, honako agindu honetako akatsak zuzentzeko dena: 2012ko urriaren 15eko Agindua, Etxebizitza-eskatzailen erregistroari eta babes ofizialeko etxebizitzak nahiz araubide autonomikoko zuzkidura-bizitokiak esleitzeko prozedurei buruzkoa. (2012ko abenduaren 28ko EHAA, 251. zk.).

Alokairua sustatzea:

- AGINDUA, 2008ko azaroaren 7koa, Etxebizitza eta Gizarte Gaietako sailburuarena, babes publikoko etxebizitzak sustatzeko laguntzei eta alokairua bultzatzeko neurriei buruzkoa. (2008ko azaroaren 19ko EHAA, 222. zk.).
- AGINDUA, 2021eko abenduaren 7koa, Lurralde Plangintza, Etxebizitza eta Garraioetako sailburuarena, alokairua eta etxebizitzaren eta bizitoki-eraikinen bestelako erabilerak sustatzeko jarduketari buruzkoa. (2021eko abenduaren 20ko EHAA, 252. zk.).



Lankidetzeta-hitzarmena Finantza Erakundeekin:

- 210/2019 DEKRETUA, abenduaren 26koa, kreditu-erakundeen eta Euskadiko Autonomia Erkidegoko Administrazioaren arteko etxebizitzaren eta lurzoruaren arloko finantza-lankidetzakoa, eta etxebizitzaren arloko erregelamendu-xedapenak aldatzekoa. (2020ko urtarrilaren 20ko EHAA, 12. zk.).

ASAP (Alokairu segurua, Arrazoizko Prezioa), merkatu libreko etxebizitzaren alokairurako bitartekaritza-programa:

- 144/2019 DEKRETUA, irailaren 17koa, Merkatu libreko etxebizitzak alokatzeko ASAP (Alokairu Segurua, Arrazoizko Prezioa) bitartekaritza-programa arautzeko dena. (2019ko irailaren 30eko EHAA, 185. zk.)
- AGINDUA, 2021eko irailaren 17koa, Lurralde Plangintza, Etxebizitza eta Garraioetako sailburuarena, etxebizitza programen zenbatekoak eguneratzeko dena. (2021eko urriaren 15eko EHAA, 526. zk.)

3.- Programaren araua, deialdia eta emate-ebazpena (EHAari Hiperesteka)

119 zenbakiko EHAA. 2015. URTEA. 3/2015 Legea, ekainaren 18koa, Etxebizitzarena

Etxebizitza kredituen publizitateari buruzko 2021eko maiatzaren 11ko Agindua, maiatzaren 19ko EHAA, 97 zk.

<https://www.euskadi.eus/y22-bopv/es/p43aBOPVWebWar/VerParalelo.do? Cd2021002864>

4.- Dirulaguntza-programaren azalpen laburra eta helburuak

Programaren helburua etxebizitza eskuratzea sustatzea da, baliabideak batez ere alokairura bideratuta.

Errentamendu babesturako etxebizitzaren sustapena diruz lagundu nahi da, baita errentamendu babesturako etxebizitzaren erosketa eta zuzkidura-bizitokiaren sustapena ere. Errentamendua sustatzeko lerro horretan, landa-ingurunean udal-etxebizitzak birgaitzeko dirulaguntzak ematen dira.

Errentamendu babesturako etxebizitzaren aldi baterako lagapena ere sartzen da, Jaurlaritzaren jabetzako etxebizitzak, kolektibo jakin batzuei zuzenean esleituak.

5.- Lortutako emaitzak, aurrekontuaren gauzatzea eta eragina gizartean

ERRENTAMENDUA SUSTATZEA

Errentamendua sustatzeko dirulaguntzak, hau da, errentamendu babesturako etxebizitzak sustatzeko dirulaguntzak, errentamendu babesturako etxebizitzak erosteko dirulaguntzak, zuzkidura-bizitokiak sustatzeko dirulaguntzak eta landa-inguruneetan udal-etxebizitzak birgaitzeko dirulaguntzak, lehiarik gabeko konkurrentzia-araubideko dirulaguntzak dira. Urtero, sailburuaren agindu bidez, dirulaguntza-lerro honetara bideratutako kredituen berri ematen da.



2021eko ekitaldiko aurrekontu-zuzkidura urte anitzeko (2021/2023) 16.860.000 eurokoa da. Tokiko erakundeek 100 etxebizitza sozial eta zuzkidura-bizitoki jartzea izan zen helburua.

2021eko ekitaldi honetan, errentamendua sustatzeko lerroan, errentamendu babestura bideratutako etxebizitzak sustatzeko laguntzak ebatzi dira, Antoñanan eta Zaratamon 2 jarduketatarako eta guztira 4 etxebizitzatarako. Dirulaguntzen zenbatekoa 138.266,96 eurokoa izan da, eta 20.076,00 euro ziurtatu dira.

Alokairu babesturako etxebizitzaren aldi baterako lagapenari dagokionez, 237 etxebizitza eta lokal esleitu dira zuzenean 2021ean.

Adierazi dugun bezala, 2021eko abenduan Agindu berria onartu zenean, eskaerak oso txikiak izan dira. 2022ko ekitaldian jarduketan kopurua berreskuratzea espero da.

ASAP (Alokairu segurua, Arrazoizko Prezioa), MERKATU LIBREKO ETXEBIZITZEN ALOKAIURAKO BITARTEKARITZA-PROGRAMA

ASAP (Alokairu segurua, Arrazoizko Prezioa) merkatu libreko etxebizitzaren alokairurako bitartekaritza-programaren helburua da titulartasun pribatuko etxebizitzak alokairuko merkatura bideratzea arrazoizko prezioan errentarientzat (2.d.2. helburua).

Aseguru-polizen bidezko berme-sistema bat ezartzen da, ez-ordaintzeak, balizko kalteak eta laguntza juridikoa estaliko dituen, etxebizitza hutsen jabeek programan parte har dezaten sustatzeko.

Jabeei eskainitako bermeen truke, Eusko Jaurlaritzak, etxebizitzaren arloan eskumena duen sailaren bitartez, alokairuen gehieneko prezioak finkatzen ditu, eta merkatu librean baino prezio txikiago eta lehiakorragoak bermatzen ditu; horrela, egoera sozioekonomikoagatik merkatu horretatik kanpo geratzen diren etxebizitza-eskatzailleek alokairuko etxebizitza eskuratzeko aukera gehiago izango dituztela ziurtatzen du.

Eusko Jaurlaritzak Bitartekaritzan Laguntzeko Eragileen Sarea sortu du. Sare horrek hainbat eginkizun garrantzitsu hartuko ditu bere gain, programa hori abian jartzeko eta martxan jartzeko.

Sortu zenetik eta 2021ean, 18 eragile laguntzaile inskribatu dira programan, lurraldeka honela banatuta:

- Araba: 2
- Bizkaia: 5
- Gipuzkoa: 9
- Alokabide, hiru lurralde historikoetan bulegoak dituen
- Araban eta Bizkaian bulegoak dituen erakunde 1

2021ean, ASAP etxebizitza-parkeak 263 etxebizitza zituen.



6.- Dirulaguntza Plan Estrategikoaren adierazle emaitzak

<u>Adierazlea</u>	<u>Aurreikuspena</u>	<u>Emitza</u>
Alokairuko etxebizitzaren sustapena	1.200	712
Zuzkidura-bizitokiaren sustapena	100	4
Alokairuko etxebizitzak aldi baterako lagatzea	270	237
Landa-eremua birgaitzea	100	4
ASAP programa	400	263



1.- Dirulaguntza-programaren izenburua

Gaztelagun programa

2.- Araua

* AGINDUA, 2018ko abenduaren 18koa, Ingurumen, Lurralde Plangintza eta Etxebizitza sailburuarena, etxebizitzaren alokairurako Gaztelagun programaren laguntzak arautzen dituen eta deialdia egiten duena.

* AGINDUA, 2019ko abenduaren 10ekoa, Ingurumen, Lurralde Plangintza eta Etxebizitzako sailburuarena, zeinaren bidez aldatzen baita etxebizitzaren alokairurako Gaztelagun programaren laguntzak arautu eta deialdia egiten duen agindua.

* AGINDUA, 2021eko irailaren 17koa, Lurralde Plangintza, Etxebizitza eta Garraioetako sailburuarena, etxebizitza programen zenbatekoak eguneratzeko dena.

3.- Programaren araua, deialdia eta emate-ebazpena (EHAari Hiperesteka)

- AGINDUA, 2018ko abenduaren 18koa, Ingurumen, Lurralde Plangintza eta Etxebizitza sailburuarena, etxebizitzaren alokairurako Gaztelagun programaren laguntzak arautzen dituen eta deialdia egiten duena. (2018ko abenduaren 28ko EHAA, 249. zk.)

- AGINDUA, 2019ko abenduaren 10ekoa, Ingurumen, Lurralde Plangintza eta Etxebizitzako sailburuarena, zeinaren bidez aldatzen baita etxebizitzaren alokairurako Gaztelagun programaren laguntzak arautu eta deialdia egiten duen agindua. (2019ko abenduaren 17ko EHAA, 239. zk.)

- AGINDUA, 2021eko irailaren 17koa, Lurralde Plangintza, Etxebizitza eta Garraioetako sailburuarena, etxebizitza programen zenbatekoak eguneratzeko dena. (2021eko urriaren 15eko EHAA, 526. zk.)

- AGINDUA, 2021eko maiatzaren 11koa, Etxebizitza kredituen publizitateari buruzkoa, maiatzaren 19ko EHAA, 97 zk.

<https://www.euskadi.eus/y22-bopv/es/p43aBOPVWebWar/VerParalelo.do? Cd2021002864>

4.- Dirulaguntza-programaren azalpen laburra eta helburuak

Dirulaguntzen programaren helburua da etxebizitza eskuratzea sustatzea, baliabideak batez ere alokairura bideratuta, gazteei emantzipazioa erraztuz.

Programa 2019ko ekitaldian hasi zen, eta Aginduan 2019/2021 aldiko hiru ekitalditarako arautzen da. 2021eko ekitaldian, helburua 2.500 ebazpenekoa da. 2022ko ekitaldian, programa hori arautzen duen agindu berri bat izapidetu da, eta iraunkorra izan nahi du.



5.- Lortutako emaitzak, aurrekontuaren gauzatzea eta eragina gizartean

2021ean gauzatzea:

2021eko ekitaldian 2.469 eskaera ebatzi dira. 2019tik, 6.592 dirulaguntza metatu dira. Beraz, 2.469 espediente aktibo daude: 476 Araban, 763 Gipuzkoan eta 1.230 Bizkaian.

Pertsona bakoitzeko batez besteko errenta 216,62 eurokoa da, eta diruz lagundutako zenbatekoa, guztira, 6.634.887,60 eurokoa.

Hasierako zuzkidura 2021eko ekitaldian 9.500.000 eurokoa da, hainbat urtetarako (2021/2024). 2021eko ekitaldian ebatzitako dirulaguntzen zenbatekoa 1.947.939,79 eurokoa da.

6.- Dirulaguntza Plan Estrategikoaren adierazle emaitzak

<u>Adierazlea</u>	<u>Aurreikuspena</u>	<u>Emaitza</u>
Alokairua ordaintzeko prestazioen onuradun diren gazteen kopurua	2.500	2.469



1.- Dirulaguntza-programaren izenburua

Udal plangintzan eta hirigintzan genero-ikuspegia txertatzeko dirulaguntzak emateko arauak ezarri eta 2021eko ekitaldirako deialdia egiten duena

2.- Araua

AGINDUA, 2021eko irailaren 8koa, Lurralde Plangintza, Etxebizitza eta Garraioetako sailburuarena, udal plangintzan eta hirigintzan genero-ikuspegia txertatzeko dirulaguntzak emateko arauak ezarri eta 2021eko ekitaldirako deialdia egiten duena

3.- Programaren araua, deialdia eta emate-ebazpena (EHA Ari Hiperesteka)

Deialdia: <https://www.euskadi.eus/y22-bopv/eu/bopv2/datos/2021/09/2104714e.pdf>

Ebazpena: <https://www.euskadi.eus/y22-bopv/eu/bopv2/datos/2021/12/2106355e.pdf>

4.- Dirulaguntza-programaren azalpen laburra eta helburuak

Aginduaren xedea da udal-plangintzan eta -hirigintzan genero-ikuspegia integratzeko dirulaguntzen oinarri arautzaileak ezartzea eta deialdia egitea 2021eko ekitaldirako.

Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako otsailaren 18ko 4/2005 Legearen 3.4 artikulua xedatzen duenez, EAEko herri-agintek genero-ikuspegia txertatu behar dute beren politika eta ekintza guztietan, halako moduz non horietan guztietan ezberdintasunak ezabatzeko eta emakumeen eta gizonen berdintasuna sustatzeko helburu orokorra ezarriko duten.

5.- Lortutako emaitzak, aurrekontuaren gauzatzea eta eragina gizartean

Aurrekontu-zuzkidura konstante mantendu da deialdi guztietan (200.000 euro); baita 2021eko deialdian ere (laugarren deialdia).

Laugarren deialdian (2021), 2017ko ekitaldian markatutako ildoari eutsi dio, eta 2018ko eta 2019ko ekitaldietan sartu ziren doikuntzei ere eutsi die. 9 udalek aurkeztu dituzte laguntza-eskaerak. Guztizko horretatik 1ek atzera egin du eta 1ek uko egin dio, diruz lagundu ezin den xedea delako. 7 udalek jaso dute dirulaguntza (1 Arabakoa, 4 Bizkaikoa eta 2 Gipuzkoakoa). Diruz lagundutako udalerrietako bost Plangintza Orokorra Berrikusteko prozesuaren hasierako faseetan daude, eta tresna horretan zentratzen dira; 1 Ordenantzetan zentratzen da, eta 1 udalerraren eremu jakin batean (eremu hori birgaitzeko plan berezian).

Dirulaguntzen guztizko zenbatekoa 52.925,80 eurokoa izan da, hau da, horretarako dagoen aurrekontuaren (200.000 euro) % 27.

Nahiz eta udal kopurua aurreko deialdietan baino askoz txikiagoa izan den, uste da emaitza hori pandemiaren testuinguru espezifikoan aztertu behar dela, udalen hirigintza-jarduera murriztu egin dela ikusi baita. Horrela, aurreko hiru deialdien emaitzaren ebaluaziotik ondorioztatzen da helburua betetzen



ari dela; dirulaguntza honekin lortu nahi den erabilgarritasuna eta gizarte-eragina lortzen ari da.

Adierazi behar da, halaber, udalen interesa mantentzen dela, eta deialdi honen emaitzan lurralde historikoetako udalerrien kopuruaren arteko orekari eusten zaiola.

Udaleko hirigintza-plangintzako tresnetan genero-ikuspegia txertatzeari buruzko laburpen-taula, egindako 4 laguntza-deialdiei dagokienez:

Genero-ikuspegia hirigintza-tresna hauetan txertatzeko proiektuak	2017	2018	2019	2021*
HAPOn berrikuspen-prozesuan	9	5	11	5
Indarrean dagoen plangintza orokorrean	2	3		
Birgaitze Plan Berezian	1			1
Birgaitze eta Barne Erreformako Plan Berezian		1		
Eraikuntza- eta/edo urbanizazio-ordenantzak	1	1	1	1
Hirigintza-tresnak, guztira	13	10	12	7

(*) Diruz lagundutako hirigintza-tresnen kopurua, entregatzeko epea 2022ko azaroaren 30era arte.

6.- Dirulaguntza Plan Estrategikoaren adierazle emaitzak

<u>Adierazlea</u>	Aurreikuspena 2021-2024	Batez besteko aurreikuspena	2021eko emaitza
Egindako dokumentuen kopurua	40	10/urte	7



1.- Dirulaguntza-programaren izenburua

Euskal Autonomia Erkidegoko udalentsako dirulaguntzak, udal informazio geografikoa hobetzeko eta Euskadiko Datu Espazialen Azpiegituran integratzeko, GeoEuskadi geoatariaren bidez, 2021eko ekitaldirako

2.- Araua

AGINDUA, 2021eko irailaren 22koa, Lurralde Plangintza, Etxebizitza eta Garraioetako sailburuarena, zeinaren bidez ezartzen baitira udal informazio geografikoa hobetzeko eta GeoEuskadi geoatariaren bidez Euskadiko Datu Espazialen Azpiegiturretan sartzeko dirulaguntzen oinarri arautzaileak eta egiten baita dirulaguntzok Euskal Autonomia Erkidegoko udalei emateko deialdia, 2021eko ekitaldirako

3.- Programaren araua, deialdia eta emate-ebazpena (EHAri Hiperesteka)

AGINDUA, 2021eko irailaren 22koa, Lurralde Plangintza, Etxebizitza eta Garraioetako sailburuarena, zeinaren bidez ezartzen baitira udal informazio geografikoa hobetzeko eta GeoEuskadi geoatariaren bidez Euskadiko Datu Espazialen Azpiegiturretan sartzeko dirulaguntzen oinarri arautzaileak eta egiten baita dirulaguntzok Euskal Autonomia Erkidegoko udalei emateko deialdia, 2021eko ekitaldirako.

EBAZPENA, 2021eko azaroaren 25ekoa, Lurralde Plangintzaren eta Hiri Agendaren sailburuordearena, zeinaren bidez ebazten eta iragartzen baitira Lurralde Plangintza, Etxebizitza eta Garraioetako sailburuaren 2021eko irailaren 22ko Aginduan aurreikusitako laguntzak (agindu horrek udal informazio geografikoa hobetzeko eta GeoEuskadi geoatariaren bidez Euskadiko Datu Espazialen Azpiegiturretan sartzeko dirulaguntzen oinarri arautzaileak ezartzen ditu eta dirulaguntzok Euskal Autonomia Erkidegoko udalei emateko deialdia egiten du, 2021eko ekitaldirako).

4.- Dirulaguntza-programaren azalpen laburra eta helburuak

Agindu honen xedea da Euskal Autonomia Erkidegoko udalentsako dirulaguntzak ematea arautzea, udal informazio geografikoaren hobekuntza sustatzeko eta Euskadiko Datu Espazialen Azpiegituraren osagaiak berrerabiltzean eta horiek GeoEuskadi geoatariaren integratzean oinarritutako udal baliabide edo zerbitzu geografikoen ezarpena bultzatzeko, 2021eko ekitaldian.

5.- Lortutako emaitzak, aurrekontuaren gauzatzea eta eragina gizartean

43 eskaera aurkeztu dira eta 21 udali eman zaie dirulaguntza. Dirulaguntzarik gabe geratu dira 19, aurrekontu-kreditua agortu delako, eta horietako 3 balorazioan gutxieneko notara iritsi ez direlako.

Beste onura askoren artean, eta arrakasta izan duten kasu batzuk edo abian dauden proiektu batzuk aipatzearen, Euskal Autonomia Erkidegoko Izendegi Geografikoan kargatuta dagoen udal-toponimia biltzea eta berrikustea lortzen ari gara, eta EAEko udaletan udal-informazio geografikoa kudeatzeko



tresnak ezartzen ari gara, neurri handi batean geoEuskadiren datuak eta zerbitzuak erabiliz (Euskadiko Datu Espazialen Azpiegitura).

6.- Dirulaguntza Plan Estrategikoaren adierazle emaitzak

<u>Adierazlea</u>	<u>Aurreikuspena</u>	<u>Emitza</u>
Diruz lagundutako udalen kopurua	25	21



1.- Dirulaguntza-programaren izenburua

Euskal Autonomia Erkidegoko salgaien eta bidaiarien errepideko garraio publikoan teknologia berrien eta segurtasunaren sistemak ezartzeko diru-laguntzak 2021. urterako

2.- Araua

Agindua, 2021eko ekainaren 8koa, Lurralde Plangintza, Etxebizitza eta Garraioetako sailburuarena, zeinaren bidez laguntza-programa bat ezartzen baita, Euskal Autonomia Erkidegoko salgaien eta bidaiarien errepideko garraio publikoan teknologia berrien eta segurtasunaren sistemak bultzatzeko.

3.- Programaren araua, deialdia eta emate-ebazpena (EHAri Hiperesteka)

<https://www.euskadi.eus/y22-bopv/eu/bopv2/datos/2021/06/2103650e.shtml>

4.- Dirulaguntza-programaren azalpen laburra eta helburuak

Laguntzak ematen dira Euskal Autonomia Erkidegoko salgaien eta bidaiarien errepideko garraio publikoan teknologia berrien eta segurtasunaren sistemak ezartzeko. Lortu nahi den helburua da zerbitzua emateko garaian segurtasuna, kalitatea, gardentasuna eta bizkortasuna handitzea; alde batetik, positiboa da garraiolariarentzat, zerbitzua azken belaunaldiko produktuekin modernizatzeko aukera emango diolako, eta bestetik, erabiltzailearentzat ere onuragarria da, kalitate, gardentasun eta segurtasun handiagoko zerbitzu bat jasotzen duelako.

5.- Lortutako emaitzak, aurrekontuaren gauzatzea eta eragina gizartean

113.000 euro erabili dira laguntza horiek finantzatzeko, Euskal Autonomia Erkidegoaren 2021 ekitaldirako aurrekontu orokorren kargura.

Laguntza horiek eskatzeko 14 espediente izapidetu dira, eta haietatik 13 espedienteri eman zaie laguntza. Diru-laguntzen zenbatekoa: 105.465,60 euro. Horietatik, 92.108,52 euro erabili dira.

Programaren eta helburuen burutzapen- eta betetze-mailari dagokionez, 14 eskaera eta 13 onuradunetatik lortutako emaitzak 2020ko ekitaldikoan antzekoak dira (pixka bat txikiagoak), baina mantenduegin dira 2020rako 15 eskabidetan ezarritako helburuetatik.

6.- Dirulaguntza Plan Estrategikoaren adierazle emaitzak

<u>Adierazlea</u>	<u>Aurreikuspena</u>	<u>Emaitza</u>
Emandako diru-laguntzak	15	13



1.- Dirulaguntza-programaren izenburua

Etxebizitzarako Prestazio Ekonomikoa (EPE)

2.- Araua

3/2015 Legea, ekainaren 18koa, Etxebizitzarena.

3.- Programaren araua, deialdia eta emate-ebazpena (EHAari Hiperesteka)

119 zenbakiko EHAA. 2015. URTEA. 3/2015 Legea, ekainaren 18koa, Etxebizitzarena

4.- Dirulaguntza-programaren azalpen laburra eta helburuak

Etxebizitzaren 3/2015 Legeak etxebizitza izateko eskubide subjektiboa aitortzen du, etxebizitza babestu bat edo bizitoki babestu bat alokairuan jarriz, baita etxebizitza libre bat ere, baldin eta erabilgarri badago bitartekaritza-programen edo bestelakoen ondorioz.

Etxebizitzarik edo bizitokirik ezean, eta, izaera subsidiarioarekin, prestazio ekonomikoen sistema bat ezarriz bete ahal izango da.

Eskatzaileek alokairu-araubideko etxebizitza edo bizitokia izango dutela bermatu nahi da, eta, halakorik ezean, prestazio ekonomiko baten bidez.

5.- Lortutako emaitzak, aurrekontuaren gauzatzea eta eragina gizartean

2021eko ekitaldian, 6.368 bizikidetz-unitateri aitortu zaie etxebizitza izateko eskubide subjektiboa. 3.273 bizikidetz-unitateri lehentasuna eman zaie esleipenean. 1.709 etxebizitza-esleipen ebatzi dira.

Etxebizitzarako prestazio ekonomikoari dagokionez, 1.154 eskatzaileari ematea ebatzi zen, 922 itxi ziren eta 232 azkendu dira. 2020ko aurrekontuaren hasierako zuzkidura 5 milioi eurokoa izan zen, eta ordainketa, berriz, 3.157.679,30 eurokoa.

6.- Dirulaguntza Plan Estrategikoaren adierazle emaitzak

<u>Adierazlea</u>	<u>Aurreikuspena</u>	<u>Emaitza</u>
Aitortutako EES duten bizikidetz-unitateen kopurua	8.500	6.368
EPE ordaintzea	5.000.000	3.157.679



1.- Dirulaguntza-programaren izenburua

Jarduera bertan behera uztea dela-eta, bidaiarien eta salgaien garraio publikoaren sektorerako laguntzak, 2021. urterako

2.- Araua

Agindua, 2021eko maiatzaren 25ekoa, Lurralde Plangintza, Etxebizitza eta Garraioetako sailburuarena, zeinaren bidez ezartzen baita jarduera bertan behera uztea dela-eta bidaiarien eta salgaien garraio publikoaren sektorerako laguntza-programa bat.

3.- Programaren araua, deialdia eta emate-ebazpena (EHAri Hiperesteka)

<https://www.euskadi.eus/y22-bopv/eu/bopv2/datos/2021/06/2103246e.shtml>

4.- Dirulaguntza-programaren azalpen laburra eta helburuak

Laguntza horiek ematen dira errepideko garraio publikoaren sektorearen arazoetako bati aurre egiteko, hain zuzen ere, garraiolari autonomoen adin handiari. Hori dela-eta, egokitzat jotzen da lan-bizitzaren zatirik handiena errepideko garraio publikoaren sektorean eman duten adineko profesionalak jarduera uztea sustatzea, eta hartarako, beharrezko baliabideak jarriko dira.

5.- Lortutako emaitzak, aurrekontuaren gauzatzea eta eragina gizartean

295.000euro erabili dira laguntza horiek finantzatzeko, Euskal Autonomia Erkidegoaren 2021 ekitaldirako aurrekontu orokorren kargura. Laguntza horiek eskatzeko 38 espediente izapidetu dira, eta haietatik 27 espedienteri eman zaie laguntza. Diru-laguntzen zenbatekoa: 253.800 euro, eta kopuru horretarik 237.400 euro erabili dira 4 onuradunek diru-laguntzari uko egitea aurkeztu ondoren.

Eskatutako baldintzak betetzen ez zituzten eskabideen kopuruari gehitzen badiogu 4 onuradunek diru-laguntzari uko egin diotela, lortutako emaitzan eragin handia izan dutela esan genezake.

6.- Dirulaguntza Plan Estrategikoaren adierazle emaitzak

<u>Adierazlea</u>	<u>Aurreikuspena</u>	<u>Emaitza</u>
Diruz lagundutako garraiolarien kopurua	38	23



1.- Dirulaguntza-programaren izenburua

Salgai dauden babes publikoko etxebizitzak

2.- Araua

3/2015 Legea, ekainaren 18koa, Etxebizitzarena.

- 39/2008 DEKRETUA, martxoaren 4koa, babes publikoko etxebizitzaren araubide juridikoari eta etxebizitzaren eta lurzorua inguruko finantza-neurriei buruzkoa. (2008ko martxoaren 28ko EHAA, 59. zk.).
- AGINDUA, 2008ko azaroaren 7koa, Etxebizitza eta Gizarte Gaietako sailburuarena, babes publikoko etxebizitzak sustatzeko laguntzei eta alokairua bultzatzeko neurriei buruzkoa. (2008ko azaroaren 19ko EHAA, 222. zk.).
- 268/2011 DEKRETUA, abenduaren 20koa, kreditu-erakundeen eta Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioaren arteko finantza-lankidetzari buruzkoa, etxebizitzaren eta lurzorua arloan. (2011ko abenduaren 30eko EHAA, 247. zk.).
- AGINDUA, 2010eko azaroaren 3koa, Etxebizitza, Herri Lan eta Garraioetako sailburuarena, babes ofizialeko etxebizitzaren gehieneko prezioak zehazteari buruzkoa (2010eko azaroaren 18ko EHAA, 222. zk.).
- AGINDUA, 2012ko urriaren 15koa, Etxebizitza, Herri Lan eta Garraioetako sailburuarena, etxebizitza-eskatzaileen erregistroari eta babes ofizialeko etxebizitzak nahiz araubide autonomikoko zuzkidura-bizitokiak esleitzeko prozedurei buruzkoa. (2012ko urriaren 31ko EHAA, 211. zk.).
- AGINDUA, 2012ko abenduaren 12koa, Etxebizitza, Herri Lan eta Garraioetako sailburuarena, honako agindu honetako akatsak zuzentzeko dena: 2012ko urriaren 15eko Agindua, Etxebizitza-eskatzaileen erregistroari eta babes ofizialeko etxebizitzak nahiz araubide autonomikoko zuzkidura-bizitokiak esleitzeko prozedurei buruzkoa. (2012ko abenduaren 28ko EHAA, 251. zk.).
- 210/2019 DEKRETUA, abenduaren 26koa, kreditu-erakundeen eta Euskadiko Autonomia Erkidegoko Administrazioaren arteko etxebizitzaren eta lurzorua arloan finantza-lankidetzakoa, eta etxebizitzaren arloan erregelamendu-xedapenak aldatzekoa. (2020ko urtarrilaren 20ko EHAA, 12. zk.).
- Finantza-lankidetzako HITZARMENA kreditu-establezimenduekin, etxebizitzaren eta lurzorua arloan 2019rako jarduketa babesgarriari buruzkoa.

3.- Programaren araua, deialdia eta emate-ebazpena (EHAri Hiperesteka)

119 zenbakiko EHAA. 2015. URTEA. 3/2015 Legea, ekainaren 18koa, Etxebizitzarena

Etxebizitza kredituen publizitateari buruzko 2021eko maiatzaren 11ko Agindua, maiatzaren 19ko EHAA, 97 zk.

<https://www.euskadi.eus/y22-bopv/es/p43aBOPVWebWar/VerParalelo.do? Cd2021002864>



4.- Dirulaguntza-programaren azalpen laburra eta helburuak

Programaren helburua etxebizitza duin eta egokia lortzea erraztea da.

Etxebizitza libre erabiliak erosteko dirulaguntzak eman nahi dira, hiri-eremu espezifikoetan, birgaitze integratuko areetan eta degradatutako areetan, jarduketa integratuei lagunduta. Azalera-eskubideko etxebizitza babestuen sustapena ere diruz lagundu nahi da. Lerro hori VISESA Euskadiko Etxebizitza eta Lurra SA sozietate publikoarekin egindako programa-kontratuen bidez gauzatzen da.

5.- Lortutako emaitzak, aurrekontuaren gauzatzea eta eragina gizartean

Lehiarik gabeko konkurrentzia-araubideko eta lehiaketa publikoko dirulaguntzak.

Urtero, sailburuaren agindu baten bidez, erabilitako etxebizitza librea erosteko kredituen berri ematen da.

Erabilitako etxebizitza librea erosteko aurrekontu-zuzkidura 200.000 eurokoa izan zen 2021eko ekitaldian, 17.565 euro gehituta. 97 etxebizitza erosi ziren, 217.565 euroko dirulaguntza emanda.

VISESAk egindako etxebizitzak alokairuan izan ziren.

6.- Dirulaguntza Plan Estrategikoaren adierazle emaitzak

<u>Adierazlea</u>	<u>Aurreikuspena</u>	<u>Emaitza</u>
Erositako etxebizitzaren kopurua	0	97
Azalera-eskubidean sustatutako etxebizitzaren kopurua	0	0
Operadore pribatuen eta kooperatiben arabera		
VISESAk eraikitako etxebizitzaren kopurua	0	0



1.- Dirulaguntza-programaren izenburua

ZTBP Euskadi 2020 programaren (BAI+D+i programa) aukera-nitxoaren helburuetan laguntzen duten ideia eta proiektu berritzaileak garatzeko dirulaguntzak

2.- Araua

Agindua, 2020ko urriaren 7koa, Lurralde Plangintza, Etxebizitza eta Garraioetako sailburuarena, zeinaren bidez 2020ko ekitaldirako dirulaguntzak arautzeko oinarriak ezartzen baitira eta horietarako deialdia egiten baita, ZTBP Euskadi 2020 planaren (Bai+D+i programa) «Hiri-habitata» aukera-nitxoko helburuak lortzen lagunduko duten ideia eta proiektu berritzaileak garatzeko

3.- Programaren araua, deialdia eta emate-ebazpena (EHAARI Hiperesteka)

Agindua, 2020ko urriaren 7koa, Lurralde Plangintza, Etxebizitza eta Garraioetako sailburuarena.

<https://www.euskadi.eus/y22-bopv/eu/bopv2/datos/2020/10/2004261e.pdf>

Ebazpena, 2021eko martxoaren 11koa, Lurralde Plangintzaren eta Hiri Agendaren sailburuordearena,

<https://www.euskadi.eus/y22-bopv/eu/bopv2/datos/2021/03/2101824e.pdf>

4.- Dirulaguntza-programaren azalpen laburra eta helburuak

Hiri-berroneratze integrarean aplikatu daitezkeen ideia eta proiektu berritzaileak garatzea, ZTBP Euskadi 2020ren "Hiri-habitata" aukera-nitxoaren helburuak lortzen lagunduko dutenak.

Hiri-irtenbideekin lotutako sektore berriaren I+G+b arloko gaitasunak garatzen eta hobetzen laguntzea, BULTZATU 2050 Euskadiko Hiri Agendan identifikatutako hiru trantsizioak azpimarratuz: teknologiko-digitala, energia- eta ingurumen-arlokoa eta demografiko-soziosanitarioa.

5.- Lortutako emaitzak, aurrekontuaren gauzatzea eta eragina gizartean

Deialdi honen emaitzak 2022ko ekitaldian ebaluatuko dira.

Aurreikusitako 400.000 eurotik 5 jarduera lagundu dira diruz, guztira 384.966,16 euroko zenbatekoarekin.

6.- Dirulaguntza Plan Estrategikoaren adierazle emaitzak

<u>Adierazlea</u>	<u>Aurreikuspena</u>	<u>Emaitza</u>
Diruz lagundutako jarduerak		5 proiektu